

Euklides. Elementuak, euskaraz

Rakel Lopez

Marketin Saila / Elhuyar Fundazioa

Elhuyar Fundazioak *Euklides. Elementuak* liburu osoaren euskarazko lehen itzulpena argitaratu du. Itzulpena EHUko irakasle Patxi Angulo Martinek egin du, baina, horretaz gain, datu ugarirekin osatu du liburua: testuinguru politikoa eta matematikoa, Euklidesen beste lanak, *Elementuak* lanaren kronologia, bost hizkuntzako hiztegia... Egileak hiru urte luze eman ditu liburu hau itzultzen eta osatzen.

EUKLIDES MATEMATIKARIAK K.A. 300. URTEAREN INGURUAN IDATZI ZUEN *ELEMENTUAK* LANA. Egile klasiko hark beste lan batzuk ere utzi zizkigun, besteak beste, *Datuak*, *Fenomenoak*, *Irudien zatiketaz*, eta *Optika*, baina, dudarik gabe, *Elementuak* izan zen haren lanik garrantzitsuena.

Lana hamahiru liburutan dago banaturik, eta horietan eskolan ikasi ditugun matematikako oinarriko kontzeptuak, propietateak, teorema... azaldu zituen. Puntuaren definiziotik hasi eta poliedro erregularrak eraiki arte, garaiko matematika ia osoa bildu zuen. Lehenengo



Liburuaren aurkezpena uztailaren 5ean egin zen Koldo Mitxelena Kulturunean. Argazkian, Jose Ramon Etxebarria, liburuaren zuzentzailea; Itziar Nogeras, Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusia; Patxi Angulo, liburuaren egilea; Agustin Arrieta, hitzaurrearen egilea; eta Lurdes Ansa, Elhuyar Edizioak sailako arduraduna.

lau liburuetan eta seigarren liburuan planoko geometriaz idatzi zuen; bosgarren liburuan magnitudeez eta proportioaz; zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren liburuetan zenbaki-teoria garatu zuen; hamargarren liburuan zenbaki irrazionalen sailkapena egin zuen; eta azkeneko hiru liburuetan espazioaren geometria landu zuen.

Lan honen garrantziaren erakusgarri dira, alde batetik, XIX. mendearen bukaera arte liburua eskoletan erabiltzen zela matematika irakasteko, eta, beste alde batetik, gehien argitaratu eta hizkuntza gehienetara itzuli den zientzia-liburua dela. Baina beste kontu batengatik ere bada garrantzitsua liburu hau: *Elementuak* lanean, Euklidesek

Aristotelesen teoria gauzatu zuen, hau da, zientzia guztiak, logikaren arabera arrazoituz, beren elementuetatik eraiki behar direla dioen teoria.

Euklidesen inguruko jardunaldia

Euskal Herriko Unibertsitateko Konputazio Zientziak eta Adimen Artifiziala sailak Euklidesen inguruko jardunaldi bat antolatu du datorren urriaren 5ean, parte hartu nahi duen ororentzat. Jardunaldi hori Donostiako Campuseko Iñaki Barriola eraikineko auditorioan egingo da. Jardunaldien egitaraua www.zientzia.net web gunean kontsulta daiteke. 

